



Dokumentu hau komunikabideetako profesionalei lana errazteko zirriborro orientagarria besterik ez da. Hortaz, nahiz eta hemen idatzita egon, hizlariak esandakoa izango da baliozkoa.

Este documento es solo un borrador orientativo para facilitar el trabajo de los profesionales de los medios de comunicación de manera que sólo será válido lo pronunciado por el orador aunque estuviere aquí escrito.

Zestoa, 11-12-2013

INTERVENCIÓN DEL CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA, JOSU ERKOREKA, EN LA PRESENTACIÓN DEL PROGRAMA PILOTO PARA PERSONAS RECLUSAS DEL CENTRO PENITENCIARIO DE MARTUTENE (PATRIMONIO CULTURAL VASCO DE INSERCIÓN SOCIAL).

Gipuzkoako ahaldun nagusi, Zestaoko alkateordea, Aranzadiko idazkari nagusi, Jaun Andreak....

Eusko Jaurlaritzak eta zehazki Herri Administrazioa eta Justizia Sailak, kezka handiz ikusten du geroz eta alde handiagoa dagoela zigor-espazio europarraren politika kriminala inspiratzen duten oinarrien eta Estatu espainiarrak egunean-egunean hartzen dituen erabaki politiko-kriminalen artean.

Alde hori, zehapen penalaren helburuan nabarmentzen da batez ere.

Europar, zehapenak humanizatzeko teorien eraginez, birgizarteratzearen helburua nagusitzen den bitartean, Estatu espainiarrean, egindako delituaren ordainketa hartzen da ia-ia zehapenaren helburu bakartzat.

Azken garai hauetan, behar baino sarriago entzuten dugu hedabideetan, zehatzeko ahalmenaren xedea, xede bakarra, zigorra bera dela -mendeku bezala hartuta- eta instituzioek xede hori baino ez dugula aintzat hartu behar.

Eta zoritxarrez, egungo egoera sozio-ekonomiko berezian ari gara aldarri horiek entzuten; hau da, gizartea ikuspuntu hori onartzearen aldeko jarrera erakusten duenean. Baina guk ez dugu horrelakorik onartzen.

Ia 250 urte igaro dira Cesar Bonasana, Beccariako markesaren *"De los Delitos y las penas"* izenburuko lan ezaguna argitara eman zenetik. Badira urteak. Baina hala ere, estatuko legegileak bere politika kriminalean egin duen atzerakada nabarmena ikusirik, ezinbestez aipatu behar dugu lan horretan jasota dagoen oinarrietako bat: *"Zehapenak ahalik eta arinenak eta gizatierrak izango dira, dagokien xederako baliagarriak diren heinean, xedea ez baita kaltea eragitea, gaizkileak delitu gehiagorik egin dezan galaraztea eta gainerako herritarrei horrelakorik egiteko asmoa kentzea baino"*.

Zorionez, sistema demokratiko helduek, alde batera utzita daukate, aspalditik zehapen penalaren xede bakarra, zigortzea izatea.

Gaur egun, Beccariak aipatzen zuen prebentzio orokor eta bereziko xedearen ondoan, aparteko lekua dauka, zehapen penalarri egotzitako gainerako zereginen aurrean, "birgizarteratzeko xedea". Eta aparteko lekua daukala helburu honek azpimarratzen dut, Konstituzioaren testuakn – zehazki, 25. artikuluaaren bigarren paragrafoan– espresuko jasotzen duen bakarra delako.

Hori gorabehera, birgizarteratzeko eredu terapeutikoak nolabaiteko "desilusioa" piztu duenez, azken bi hamarkadetan joera berriak sendotu dira European, espetxe-politikaren arloan, espetxe-zigorra ordezkatzeko sistemak eta hautabideak ezartzeko.

Hemen gauden guztiok ondo baino hobeto dakigu askatasuna kentzen duten zigorrek, espetxe-zigorrek alegia, oztopo gaindiezinak sortzen dituztela birgizarteratzeari begira.

Europako hainbat instantziak azterketa eta dokumentu zenbait prestatu dute egoera horren berri jasotzeko. Esate baterako, Europako Kontseiluak 1973. urtetik aurrera eman dituen hainbat ebazpenen arabera, ezinbestekoa da espetxetik kanpokoak diren eta askatasuna kentzen ez duten programak ezartzea, heziketa emateko, integratzeko, laguntzeko, lana eta prestakuntza emateko.

Azken batean, neurri horiek espetxeratuta egotea bezain eraginkorrak izan behar dute, mendekatzeko edo kaltea eragiteko tentaldiak alde batera utzita.

Hala ere, ezin dugu ukatu kasu batzuetan ezinezkoa dela, erabat, espetxeaz besteko zehapenak ezartzea. Kasu horietan, ahalik eta gehien arindu behar ditugu instituzioek, askatasuna bezalako oinarritzko eskubide bat kentzeak edo mugatzeak sorrarazten dituen ondorio kaltegarriak. Are gehiago, espetxean luzaro egon ondoren, pertsonak desozializatzeko arrisku handia duenean.

Espetxeratuta egotearen ondorioz, arrisku handia dago espetxe-politikak, birgizarteratu orde, gizarteari egokituta ez dauden jokabideak sustatzeko. Hortaz, ahalegin mota guztiak egin behar ditugu jokabide horiek estrukturalak bilakatu ez daitezen.

Horixe da, izan ere, gaur hemen batu gaituen programaren xedea.

Lan eta gizarteko ibilbideak martxan jartzea baita bide bakarra presoan desozializazioa saihesteko.

Presoen autonomia erraztuko duten prestakuntza, hezkuntza eta laneko jarduerak sustatzea baita bide bakarra presoak benetan gizarteratu daitezen lortzeko.

“Delituaren bizkar bizitzea” ez den benetako aukera ematea baita bide bakarra delitu gehiago egiteko aukerak murrizteko.

Únicamente mediante la implementación de itinerarios sociolaborales se contribuye a evitar la desocialización de la población presa.

Únicamente mediante el fomento de actuaciones formativas, educativas y laborales que posibiliten la autonomía de las personas presas la reintegración real de estas en la sociedad será real.

Únicamente se reducirán la posibilidades de recaer en el delito, si existe una opción real distinta a la de “vivir del delito”

Europako Parlamentuak 2011ko azaroaren 15ean eman zuen erabaki baten jasotzen dena gauzatu nahi du Aranzadi elkartearen proiektu honek. Izan ere, erabaki horrek bere puntuetako batean argi eta garbi adierazten duenez, nahitaezkoa da *“presoei baldintza duinak eskaintzea eta gizarteratzeko prest egon daitezen diseinatu diren planak eskuratzea, horrela, nabarmen gutxitzen baitira delitua berriz egiteko aukerak”*.

Gaur, proiektu garrantzitsu hau ezagutzera ematean, utz egidazue esaten hitzetatik ekintzetara jo behar dugula: Europako esparruan emandako erabaki batetik, jo dezagun Martuteneko espetxeko presoekin egin dugun jarduera zehatz batera.

Bereziki nabarmendu nahi dut, jarduera hau, ondoren aipatuko ditudanei esker lortu dugula:

a) Hemen dauden guztien elkarlanari esker: Martuteneko espetxea, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Zestoako Udala, Kriminologiako Euskal Institutua, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa, Trenbidearen Euskal Museoa eta Aranzadi Zientzia Elkarte.

b) Lortu nahi diren helburu zehatzek benetan betetzen dutela zigorrak birgizarteratzeko duen betekizuna; laburbilduz, hiru helburu hauek dira:

1.-Posibilitar a los reclusos una formación lo más homologada posible y experiencia laboral que facilite su inserción social y laboral que asimismo revierta en un beneficio social para las localidades y comarcas de Euskadi.

2.-Va permitir la obtención una metodología efectiva en la inclusión laboral de los reclusos que además pueda tener continuidad y viabilidad en los próximos años.

3.-Va a permitir la creación de una dinámica de colaboración interinstitucional de cara a la inclusión socio-laboral de las personas presas que dignifique la función resocializadora de las penas.

1.- Presoei ahalik eta prestakuntzarik homologatuena eta lan-esperientzia izateko aukera ematea, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua errazagoa izan dadin, eta, aldi berean, horrek onura soziala ekar diezaien Euskadiko udalerriei eta eskualdeei.

2.- Presoak laneratzeko metodologia eraginkorra izatea, eta datozen urteetan horri jarraipena eta bideragarritasuna ematea.

3.- Instituzioak elkarren artean lankidetzan aritzeko dinamika sortzea, presoak gizarteratzeko eta laneratzeko, eta, horrenbestez, zigorrek izan behar duten birgizarteratzeko betekizuna duintzeko.

Eta honela egin da:

Aranzadi elkarteko teknikariek goizeko 8:30ean jaso dituzte presoak, Martuteneko espetxetik, bi furgonetatan. Prestakuntzako aldia astelehenetik ostiralera arte izan da, 20 lanegunetan, 9:30etik 12:30era eta 14:00etatik 16:00etara. Ikastaroa egin bitartean, tutorepean egon dira, eta kriminologiako praktikak egiten ari ziren lau ikasleren laguntza jaso dute, Kriminologiako Euskal Institutuarekin egindako akordioaren esparruan. Oso emaitza onak izan dituzte parte-hartzaile guztiek.

Y el desarrollo del mismo se llevará a cabo de la siguiente forma: Las personas presas son recogidas en el Centro Penitenciario de Martutene a las 8:30 de la mañana por técnicos de Aranzadi en dos furgonetas. La jornada de formación tiene lugar de lunes a viernes de 9:30 a 12:30 y de 14:00 a 16:00 durante 20 días laborables. Durante el curso han sido tutorizados y acompañados por cuatro alumnas en prácticas de criminología en el marco del acuerdo con el Instituto Vasco de Criminología, siendo los resultados muy positivos por parte de todos los participantes.

Amaitu aurretik, ezinbestez nabarmendu behar dut, Estatuak espetxe-instituzioen arloan transferentziak egiteari behin eta berriro uko egin dioten arren, hori ez dela oztopo izan gobernu honek lan egin dezan bere espetxe-eredua egituratzen joateko.

Ildo horretan, lanean aritu gara, espetxeetako zuzendaritzekin eta tratamendu-taldeekin eta Euskadin presoekin aritzen diren erakundeekin koordinatuta, eta, horrenbestez, baliabide inklusiboak ezarri ditugu –gaur aurkeztu dugunaren modukoak–, lagungarriak izan daitezten pertsona horiek espetxetik ateratzeko aukera bultzatzeko.

No puedo terminar mi intervención sin antes poner en valor que la contumaz negativa del Estado a realizar la transferencia en materia de instituciones penitenciarias no ha sido obstáculo para que este Gobierno trabaje en la configuración de un modelo penitenciario propio, desarrollando una labor coordinada con las Direcciones y equipos de tratamiento de las prisiones y con las entidades que en Euskadi trabajan con personas presas, estableciendo para ello recursos de inclusión que contribuyan como el que hoy hemos presentado a impulsar la salida de prisión de esas personas.

Dokumentu hau komunikabideetako profesionalei lana errazteko zirriborro orientagarria besterik ez da. Hortaz, nahiz eta hemen idatzita egon, hizlariak esandakoa izango da baliozkoa.

Este documento es solo un borrador orientativo para facilitar el trabajo de los profesionales de los medios de comunicación de manera que sólo será válido lo pronunciado por el orador aunque estuviere aquí escrito.